

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Kontsuluten itxarote-zerrendan 1.350 pertsona gutxiago izan ziren irailean, eta 2 egunetan jaitsi da atzerapena, 60 egunekoa dena orain

Ebakuntza egiteko itxarote-zerrenda 4 egunetan gutxitu da, eta orain 85 egunekoa da

Viernes, 17 de octubre de 2014

Osasun-arretarako itxarote-zerrenda gutxitu egin da kontsuluten nahiz ebakuntzen arloan. Irailaren 30eko datuetatik ondorioztatzen denez, kontsuluten itxarote-zerrendan, atzerapena 2 egun balioudunetan gutxitu da, eta 60 egunekoa da orain. Aipagarria da, 1.350 pertsona gutxiago daudela itxaroten hilabete bakar batean, eta ebakuntza egiteko itxarote-zerrenda ere 4 egun balioudun gutxitu dela; 85 egun dira orain.



Mediku-kontsulta.

Lehen kontsultei dagokionez, adierazgarria da Traumatologiak izandako jokabidea, 884 pertsona gutxiago baitaude itxaroten, eta batez besteko atzerapena, berriz, 10 egun balioudunekoa da. Urologian 642 pertsona gutxiago dago itxaroten, batez besteko atzerapena 17 egunetan jaitsiz. Beste zenbait zerbitzuek, Otorrinolaringologia, Oftalmologia edo Dermatologiak, esaterako, itxaroteko epea 5 egunetan murriztu dute, 13 egunetik 8ra; eta Kardiologian bi egunetan murriztu da, eta 28 egunekoa da orain.

Ebakuntza egiteko zain dauden itxarote-zerrendari dagokionez, eskaera handieneko kirurgia-espezialitateen egoera, honako hau da: kirurgia orokorrean atzerapena 80tik 79ra pasa da; oftalmologian, 4 egunetan jaitsi da (60tik 56ra); Traumatologian 10 egunetan jaitea lortu da, 116tik 106ra; eta Urologian 7 egunetan, 41etik 34 egun balioudunetara.

Garrantzitsua da oroitzea Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideak itxarote-zerrendak kudeatzen dituela pazienteak lehenesteko mekanismoekin; haiek argi eta garbi ezartzen dituzte lehentasunezkoak eta lehentasunezkoak ez diren ebakuntzen arteko bereizketa. Era horretako kudeaketarekin lan egiten da garrantzi kliniko handiagoko prozesuetan desegokiak diren atzerapenik gerta ez dadin, itxarote-zerrendei buruzko edozein jardueratan funtsezkoa eta utziezina den irizpidea.